

B

BARREN

TXIKIKOM



Merkadilloa berriro Plaza Txikira



Santa Ana kalea, 7
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 011



- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- NAHI IZANEZ GERO, ORDENAGAILU BIDEZ TEST EGITEKO AUKERA EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK

LAGUNAK

KOLTXOI DENDA - TEXTIL HOGAR

**BISITATU GURE ERAKUSKETA,
HARRITUKO ZAITUGU.
LAGUNAK GURE DENDAK
BERRIZTATZEN JARRAITZEN DU.
Armairuak, arropategia, armairu-barrua...**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Eskailera askotxo

Plaza erdian 30eko hamarkadako kotxe beltz, disdiratsu bat zegoen, eta udaletxearen azpian gero eta jende gehiago biltzen hasi zen: trajeak, orrazkera bereziak, takoiak eta soineko berriak. Ezkontza zen, ezkontza zibila, eta gero eta gehiago ikusten direla jabetu nintzen.

Izan ere, lehen, denak elizatik ezkontzen ziren, eta ea nor ausartzen zen ezetz esaten, gainera! Gero, udaletxera joaten hasi ziren batzuk, erdi lotsaturik, ertzeko arkutik, inork ikusterik nahiko ez balute moduan. Eta alkateek ez zuten jakiten zer esan. Orain, ordea, egoera normaldu egin da, eta udaletxera joaten direnak elizara joaten direnen pareko jantziak eramaten dituzte, eta haiek bezain harro joaten dira, arroz eta guzti.

Gu geu ez ginen ezkondu, maitasunari mugak eta paperak ezartzeak ez zuela merezi uste genuelako, horren truke onura ekonomikoak izan arren; baina, tira, nahiago dut, ezkontzekotan, gazteak udaletxetik ezkontzea elizatik baino, betiko elizaren irudia atzerakoia iruditzen baitzait –sinistu ere ez

baitut egiten-. Eta ez dakit zergatik, guardia zibilak irudikatzen ditut han sartzen, aurrean, palio azpian, agintari zaharkituak doazen bitartean.

Orain, ordea, zera bururatu zait. Ez dudala oraindik gure herrian hileta zibilik ikusi. Izango da, agian, elizatik ezkontzen diren horiei guztiei elizan egiten dietelako azken agurra. Baina, udaletxetik ezkontzen ari direnak, ezkondu gabe daudenak, edo garbiago esanda, elizakook ez garenok laster hasiko gara –zenbat eta beranduago, hobe, noski– nola esan, azken arnasa ematen.

Ba, hileta zibilak egiteko tokia non jarri pentsatzen ere hasi beharko dugu, ezkontza ekitaldiak, bai, baina hileta ekitaldiak pleno-aretoan egitea ez baita oso eroso izango, batez ere, zerraldoa lepoan hartuta eskailera guzti horiek igo beharko dituztenentzat.

Iñaki Odriozola



“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Hileta zibilak egiteko tokia non jarri pentsatzen ere hasi beharko dugu”



**Jose
Gurrutxagarekin
solasean**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



MUSEAN ERREGE

PEDRO GARATE eta MANUEL SALEGI muslariak



Orduak eta orduak pasatzen dituzte musean jokatzeko Manuel Salegik eta Pedro Garatek, eta makina bat sari eskuratu dituzte azkeneko urteotan. Gipuzkoako Txapelketan txapela lortzetik urrats batera gelditu ziren, eta Euskal Herriko Txapelketan, berriz, bosgarren sailkatu ziren, puntutan seigarrenarekin berdinduta.

Euskal Herriko txapelketan lehenengo hamar onenen artean sailkatu zarete. Espero zenuten?

Manuel: Ez. Arratsalderako sailkatzeko planean joan ginen gu, modu horretan bertan bazkaldu ahal izateko, baina sailkatu ginen, eta behin sailkatuta, gehiago nahi, badakizu. Lehenengoak kanporatu genituen ondoren, eta zera pentsatu genuen: 'Orain sari onak zeudek!'. Eta hazi egin ginen. Beste bikote bat kanporatu izan bagenu laugarren gelditzen ginen, baina ezin. Nafarrek bota

gintuzten, eta bosgarren gelditu ginen seigarrenarekin berdinduta. Baina, Euskadikora joan aurretik, bigarren egin genuen Gipuzkoakoan. Horixe izan zen penagarria. Burura ekarrita izan genuen txapela, baina kendu ziguten eta...

Txapelketetan ibili gabeak ez zarete, hala ere. Noiz hasi zineten?

Manuel: Orain 40 bat urte irabazi nuen nik estreinako txapelketa, Antzuolan, Jose Loiolarekin. Iritsi ginen hara, eta geuk elkarri: "Hemen zorte ederra beharko diagu gaur". 66 bikotetik aurrena atera genuen.

16:00etan hasi eta gauerdian amaitu genuen hangoa. Txapelketa hark hauspotuta, Itziarren bigarren atera genuen gero, Agarren, eta hirugarren Santuaranen. Josek laga egin zuen, baina, eta Sasiolako Agarrekoarekin hasi nintzen gero txapelketetara joaten. 44 txapel irabazi genituen, leku askotara joanda. Gero, Gernikan, Arteagan lanean ibili nintzenez, Txopebentakoarekin ibili nintzen, eta hiru txapel lortu genituen. Koinatuarekin lortu nuen beste bat, Itziarren, lau erregekoan.

Binaka jokatzan duzue, baina sarri bakarrik ere joan zara txapelketara zu, Manuel.

Manuel: Mendatan, bakarrik joanda lortu nuen txapela. Bakarrik joan nintzen, eta tabernan zopak jaten zegoen bati galdetu nion ea nirekin jokatu zuen. Hasi ginen, eta aurrena atera genuen. Han hasi zen laguna 'giputxak modukorik ez dago munduan' oihuka. Hurrengo, Itziarrera joan nintzen, bakar-bakarrik, han lau erregekoan jokatzan dutelako eta zapatuetan lagunak okupatuta egoten direlako. Iritsi nintzenez, Azpeitiko hirukote bat azaldu zen, aita- semeak eta gazte bat. 'Orain laguna bilatu behar!' ari ziren esaten, eta hurreratu nintzaien. Gaztearekin aurkeztu nintzen. 48 bikote ziren han, eta txapela lortu genuen. Handik hilabetera-edo telefonoak jo zuen etxean, eta bera zen, ia bakarrik nengoen galdezka. Baietz erantzun nion, eta halaxe joan ginen biok Lasturrera, musean jokatzera. Joan, eta irabazi aizul. Txiripa izan zen, baina txapela-ekin itzuli ginen etxera.

Horrenbeste txapelekin ez duzue hotzik pasatuko zuek!

Manuel S.: *Jajaja*. Ez, ez. Nik hamabi bat txapel baditut, eta 32-34 garaikur ere bai, hautsak hartzen. Lau apal bete ditut, eta bosgarren bat ere jarriko nuke, baina hemendik aurrera ez dira asko etorriko eta...

Pedro G.: Artista bat da hau. Jubilatuetan batzen gara jokorako, eta han ondo moldatzen gara, baina txapelketak beste kontu bat dira. Honekin joanda nago ni Lekeitio ondora, Markinara eta Arrasatera ere bai. Markinan sarietaraino iritsi, eta bota egin gintuzten. Nik badakit honi asko gustatzen zaiola, eta bakarrik ez lagatzearen laguntzen diot, baina esana diot gehiago ez naizela joango. Ermura joaten ere egon ginen gu orain pare bat urte, barixakuero-barixakuero, eta ia joaten ginen bestetan ekartzen genuen zerbait etxera, baina oso berandu hasten zen, 23:30ak aldera. Etxera orduko 2:00ak izaten ziren. Pena ematen diot, baina ezin diot lagundu berak nahi bestetan. Ezin diot segi! Egon zen sasoi bat Bilbo ondoraino joaten zela, Boluetara-edo. Handik ere ekarri zuen zerbait.

Muslari ona izateko gezurrak esaten ikasi behar ei da lehenengo. Horrenbeste txapelekin... Zeinek sinistuko dizue zuei?

Pedro: Gezurrak jo behar dira. Beti egiarekin dabilenak noizean behin irabaziko du, baina gezurrak jo behar dira musean. Gero, hurrengoan, egia bota eta gezurra delakoan ez dizute sinistuko, beharbada, baina arriskatzan ez duenak jai dauka.

Beti-betiko lagunarekin jokatzek izango du abantailarik orduan, ala?

Manuel: Bai, beti, baina aurkariari igarri behar zaio, ez lagunari. Lagunari ez dago igarri beharrik. Keinuak daude horretarako, baina hemen, jubilatuetan, keinu gabe jokatzan dugunez, Pedro [Garate] ez dago ohituta horretara, ezta Jose Loiola ere. Neu ibili behar izaten naiz aurkaria zaintzeko eta niri begirik ez kentzeko esanez. Aurkaria zaintzen

du, baina ni ez banau zaintzen...

Pedro: Jubilatuetan gezur askorekin jokatzan da. Kanpoan, berriz, ahal den gutxien botata hobe. Ezer etortzen ez bada, derrigorrean bota behar izaten da, baina ondo zabilzanean, egia esatea, hobe.

Herri batetik bestera alderik badago?

Manuel: Aldea badago, bai. Araudia berdina da leku guztietan, baina leku askotan ez diote kasurik egiten. Txapelketan, atzetik hizketan ibiltzea ere ez dago libre, baina ibiltzen dira. Inor ez da egoten zaintzen, norberak eskatu ezean behintzat. Azkeneko txapelketan ere halaxe esan nion nik antolatzaileetako bati: "Deskuidoan frantsesen kontra jokatzek tokatzen bazaigu, zaindu gero, e! Haiek dena esaten diote elkarri, eta guk, berriz, ez diegu ezer ulertzen!"

Burua argi izateko primerakoa ei da kartetan jokatzek.

Manuel: Ni horretxek mantentzen nau. Andreak sarri esaten diot: "Kartetan burua fresko izaten duzu ba zuk! Jarri ezazu burua beste gauzetan ere!"

Noizkoa duzue kartetarako zaletasuna?

Pedro: Aspaldikoa. Lehen, zaletasun handia zegoen Elgoibarren, eta orain ere, zapatu-domekero joaten gara gu Mendarora, hango koadrilarekin kartetan egitera. Hemen, baina, ez dago lehengo afiziorik.

Manuel: Elgoibarren, ez baina beste leku batzuetan, bai, e! Joan bestela Azpeiti aldera.

Zortzi orduko txapelketak ere jokatu dituzue.

Nola mantentzen zarete esna?

Manuel: Txapelketa luzatzea aurrera egin duzunaren seinale da, eta orduantxe egoten naiz ni gustura. Hau [Pedro] hasten zait aldamenetik 'nahikua mus egin diagu' esanez, baina ni gustura.

Pedro: Aspertu ez, baina luze eginda egoten naiz. Ilusioak mantentzen zaitu esna. Gero

zerbait ateratzen baduzu, ondo, eta bestela ere, bai.

Eta beti musean jokatzan duzue?

Manuel: Gehienetan, bai. Briskan ere ibili naiz ni Zestoako bainuetxean, baina denborapasa.

Pedro: Mendaron, tutean jarduten dugu, baina nik musa nahiago dut. Biziagoa da. Tutean ezin da, gainera, gezurrik esan!

Zuek ezagutzen ez zaituztenik ez da izango hemen inguruan?

Manuel: Bai, bai, egongo dira makina bat. Behin, gertatu zitzaidan polita. Gernikan, ligaxka batean, finalera iritsi nintzen, eta han zebilen argazkilari katalan bat, Euskal Herriko jokoak ezagutzera etorri zena. "Musa ere hemengo jokoa izango da ba?" galdetu zigun, eta argazki mordo bat atera zizkigun. Gero argazki haiek Bartzelonan argitaratu zituen, eta hango nire koinata batek deitu zidan, argazkitan ikusi ninduela esanez.

Elkarri nota jartzen jarriko zaituztet orain. Zer da elkarrengandik gehien miresten duzuen? zer da lagunak hobetu behar duena?

Pedro: Hau demasa da, baina beldur larregi izaten du batzuentzat. Horixe, bestelakoan ni gustura ibiltzen naiz honekin.

Manuel: Tantoetan ondo goazenean, eustea gustatzen zait, baina honek, berriz, tarteak ordagoa. Zortzi erregekoan ni baino hobe da, hori bai.

“Gezurak jo behar dira musean. Arriskatzan ez duenak jai dauka”



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Guass

Istiluak, drogak, min moralak, lotsaga-bekeriak... horiek denak aipatu dituzte Guass diskotekari buruzko BARREneko erreportaiaren inkestatutako herritarrek. Horiei erantzutea nahiko nieke. Drogak kontsumitzeko ez dago zertan Guass-era joan. Gainera, Guass inguruan sortu diren arazo guztiak diskotekarekin lotu dituzte, jakin gabe arazo horiek eragin dituztenak Guass-etik zetozen edo ez (Batearen kasua etab.).

Publikoki esatea nahi dut Guass Rega-etón eta antzeko musikatik alde egiteko aukera zela askorentzat, elektronikaren maitaleentzat. Musikaz gozatzera joaten ginen hara. Gutxi batzuk ateraino joaten dira oraindik larunbatero, irekita egongo den itxaropenarekin. Benetan sentitu dugu gure klub-a ixtea. Kolpe izugarria izan da guretzat, eta nire kideei zera esan nahi nieke: *“No molesten, estamos bailando”*

L. L. A. ☾

Eskerrik asko, feminista!

Eskerrik asko, pasa dan asteko festa kolorez, hitzez, kantuz, dantzaz eta umorez bete zenduen feminista danori.

Eskerrik asko, gaztetxia takoiez, mendiko botaz, bizarrez, ile motzez eta motots luzez betetzien. Eta ezpain gorritz, eta besape iletsuz, eta depilautako hankez, eta prakaz eta gona motzez, betaurrekoz, lentilaz, eta gainontzekoez. Asko eta desberdiñak izan giñan bertan batutakuak, eta eskertzekua da hori. Elgoibartik eta kanpotik guregana gerturatu izatiarren, danon artian halako giro onian Festa Feminista ospatzen asmatu gendulako, eskerrak eman eta zo-

riontzeko moduan gaude.

Irribarre txiki batekin gogorutzen dituzte zapatuko anekdotak. Musikian hasierako buruhaustiak, tonbolari umoria eta hitz polittik gehitzera etorri ziran garbitzaileen kantu eta kontuak, Durangokuen antzerkixa, hemen bertakuen *Hankahutsik* saioko kantu eta poesiak, eta bukaerako rapa, eta Nestorren heriotza, eta Xabiren biluztea... Eta Mikaela Pitonen letrak, patxarana, negarrak... eta Amaia eta Hirune emakumien musikaren rekopi haura dana...

Sekula jandako krepik onenak jan genduzen zapatuan, inoiz ataratako tragorik onenekin! Eskerrik asko sukaldariei, ezkurtuan egindako lan danagaittik, eta baita turnoak egitera gerturatutakuei ere! Eskerrik asko, era berian, Gazte Asanbladari eta Haritz dantza taldearen lokala laga digutenei. Gora zuek!

Ez dakigu bigarren bat egongo dan. Eguneroko pausuan gabiltza, aurrera-aurrera gehixegi begiratu gabe. Baiña zapatuak, beste bost egiteko gogoz ere laga gaittu horraittiokan.

Gustura gabiz dihardugun honetan, eta horregaittik allau gara honaiño. Aurrerantzian ere, gogotsu jarraitzeko arrazoirik ez jaku falta. Izango dogu alkarren berri.

Eskerrik asko, eta zorianak berriz ere. Gora borroka feminista! Gora gu!

Elgoibarko Emakumeen Asanblada ☾

Kexa bati erantzunez

Betidanik izan naiz oso kritikoa BARREN aldizkariak herritarrei kexak azaltzeko eskaintzen dien metodoarekin. Izan ere, erraza baita edozein errebindikazio pertsonal

publiko egitea, modu anonimoan, eta inolako kontrasterik eta justifikaziorik gabe.

Hau dena jakinarazi izan diet askotan aldizkariko arduradunei. Halere, azken boladan ez diot erantzunik eman nahi izan gure instalazioei buruz aldizkarian ateratzen diren hainbat kexari.

Duela pare bat aste, ordea, kiroldegiko igerilekuaren uraren tenperaturaz argitaratu zen kexa bat, eta horren harira esan nahi dut gure igerilekuan 28 eta 28,3 gradu bitarteko tenperatura konstantea mantentzen dela. Uler dezaket erabiltzailearen bati tenperatura hori hotza iruditzea, nahiz eta Eusko Jauriaritzaren Igerilekuen Araudiak esan baldintza higieniko-sanitario egokiak mantentzeko eta uretan germen patogenoak azal ez daitezen, tenperaturak ez duela 27 gradu gainditu behar.

Ezin da onartu, baina, gu gezurtizat hartzea, aldageletako sarreran dagoen tenperatura-panelean jartzen den uraren tenperatura benetakoa ez dela esanda Gure zintotasuna zalantzan jartzen duen erabiltzaile honi esango nioke ondo kalibratutako termometroa ekartzeko, Osasun Sailak guri eskatzen diguna modukoa, panelean jartzen duena egia den ala ez egiaztatzeko.

Gogora ekarri nahi diot mantenuaz arduratzen den enpresa bat dagoela, gure igerilekuen auto-kontrola bideratzeko. Bertan, egunean bi aldiz jasotzen da uraren tenperatura, eta lagin horiek Eusko Jauriaritzaren Osasun Sailera bidaltzen dira maiztasun batez.

Ramon Mugica,
Kirol Patronatuko zuzendaria ☾

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Maialen
Olazabal

Udaberriko gure
lehenengo Zozoak Beleari
honetan irribarrearen inguruan
idaztea otu zait. Zapatu iluntzean *Inozen-*

tzio's Xou ikustera joan nintzen Mendaroko gaztetxera, eta izugarri ondo pasatu nuen. Mendaroko *xowman* bat eszenatoki gainean, bera bakarrik, hizketan, dantzan, magia, eta mimika egiten..., eta han geundenak, berriz, barrez lehertzen. Edonork ez du balio horretarako; nik behintzat, ez. Handik irten eta konturatu nintzen zein gauza gutxirekin lor daitekeen irribarrea sortzea.



Ane
Odria

Aupa, Maialen!

Nik bi beharrean, argazki bakarra erakutsiko dizut. Argazki bakarra, baina irribarre askokoa, ea gustatzen zaizun! Ostiral arratsaldeko 17:30ak dira, eta Elgoibarko haurrak lagun handi baten zain daude Plaza Handian. Kiribil iristear dago. Euskal Herrian zehar batetik bestera ibili ostean, berriz ere Elgoibarko adiskideekin euskaraz ondo pasatzera etorriko da.

Gu ere, kiribiltxoak, hainbeste maite dugun barraskiloarekin jolasteko irrikaz gaude. Dena prest daukagu: baflea, eszenatokia, eskulanetarako materiala, mozorroak... eta nola ez, gogoia, lanerako ilusioa mantentzeko ezinbestekoa den gogo hori. Eguraldia lagun dela, plaza jendez gainezka dago, eta txikiak bezain pozik daude helduegoak ere. Horra nire argazkia, Maialen.

Zure bi argazkietan bezala, irribarreak dira nagusi nirean ere, eta ez pentsa umeak direnik iri egiten duten bakarrik. Herritik eta herriarentzat sortutako ekintza batek sortzen duen bizipoza nabari da argazkian; polita da.

“Udaberriko lehenengo Zozoak Beleari

honetan irribarrearen inguruan idaztea otu zait”

Eta beste eszenatoki batera joanez, aste honetan ere ikusi eta bizi ditut bestelako irribarreak. Ospitalean, 60 urteko emakume bat ezagutu dut, garuneko odoljario baten ondorioz hitz egin ezinda geratu dena. Begietara begiratu eta zerbait esan nahi zigun, baina ez zuen lortzen. Baina bera agurtzen ari ginela, agur ahul, leun eta ezku bat irten zitzaion. Orduan eskaini zigun irribarrea ez zait ahaztuko. Bere inguruko guztioi ere, aste osorako irribarrea marraztu digu. Zer gutxi eta zenbat!

Aste honetako nire bi irribarren argazkiak dira horiek. Zureak zeintzuk dira?

“Zure bi argazkietan bezala, irribarreak dira

nagusi nire argazkian ere”

Nik, pena handiz, baina denboralditxo batean ezin izango dut gainerako kiribiltxoekin batera ostiral arratsaldeetan plazan jolastu. Hala ere, badakit Kiribil gaur ere etortzekoa dela; bai gaur eta baita hemendik aurrerako ostiraletan ere. Ea orain arte bezala Plaza Handia irribarez betetzea lortzen duen, seguru baietz!




Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAU URTEREN ONDOREN, HERRI ERDIRA BERRIRO



Plaza Txikiko eta Leku Ederreko planoak. Zenbakitan, merkadilloko saltzaileentzako jarriko dituzten postuak.

Merkadilloa erdigunera ekarriko dute maiatzean. Halaxe jakinarazi zuen joan zen eguenean Elgoibarko Udalak. 2006ko ekaina bukaeran eraman zuten merkadilloa Plaza Handitik Sigmara, eta orain, ia lau urteren ondoren, eta leku aldatze hark eragin zuen ekaitza baretu ostean, Plaza Txikira eta Leku Ederrera ekartzea erabaki du Udalak, merkadilloari buruz egindako galdeketa batean oinarrituta. Kale berri bat egokituko dute taxi geltoki paretik parroikia pareraino dauden etxebizitzaren aurrealdean, eta hortxe jarriko dituzte, eguenero, merkadilloko postuak.

Ainara Argoitia

Legegintzaldi Planean (2007-2011), merkadilloaren gaia aztertzeko konpromisoa hartu zuen Elgoibarko Udalak, eta, 2007ko ekainean, ikerketa bat abiatu zuen, “egoeraren diagnostika egin eta herriko merkataritza eta oro har zerbitzuen sektorea biziberritzeko”. Orain, ikerketa horren emaitzak esku artean hartuta, merkadilloa herrigunera ekartzea erabaki dute. Datuak argiak dira: batetik, merkadilloko ohiko erosleen %63,7k onartu dute gutxiagotan joaten direla merkadillora, Sigmara eraman zutenetik. Bestetik, merkadilloan erosteari laga dioten hamar herritarretik zortzik leku aldatzea aipatu du-

te horren arrazoitzat. Labur esanda, 2005eko erreferendumean herri-tarrek eman zuten iritzia berretsi dute ikerketa horren emaitzek. Orduan, merkadilloa erdigunean mantentzearen alde bozkatu zuten 3.656 lagunek –3.378 lagunek parte hartu zuten–.

Maiatzean ekarriko dute merkadilloa herriko erdigunera, Plaza Txikira eta Leku Ederrera. Horretarako, baina, zenbait obra egin beharko dituzte lehenengo. Plaza Txikian, OTA-TAO tiketa ateratzeko makina dagoen lekutik etxebizitzetara arteko tartea lautu egingo dute, espaloi ertzeko koska kenduta, eta hortik parrokiaraino, pasealeku berri bat

egokituko dute. Pasealeku berri horretan eta Leku-Ederren [saskibaloia kantxa dagoen lekuan] sartuko dira gaur egun Sigmara etortzen diren 21 saltzaileak. Udalak 3x3 metroko 48 modulotan banatu du espazio hori, eta dagoeneko zehaztu du zeini zein leku eta zenbat modulo dagozkion ere. Nolanahi ere, merkadilloan mahai bat jarri nahi duen edonork izango du izena emateko aukera, nahiz eta zain egon beharko duen, harik eta lekuren bat libre gelditu arte.

Inkesta

Lau puntu hartu dituzte kontuan ikerketan: gaur egungo merkadilloaren ezaugarriak, bezeroak eta haiek egindako balorazioa, herriko saltokien kokagunea, eta merkadilloa jartzeko leku berriak, eta horren inguruan galdetu die 350 laguni –telefonoz, 239ri, eta merkadilloan bertan, beste 111ri–.

Ikerketa horretatik ondorioztatu dute elgoibartarrek eta gertuko herrietako bizilagunek estimutan dutela merkadilloa, inkestatutako enpresen erdiek inguru, tarteka joaten direla erantzun dutelako, eta ohiko lau erosletik bat astero-astero joaten delako erosketak egitera, eta gutxienez, beste bat, hilean behin-edo. Datuek erakusten dute, era berean, merkadilloa joateko hamar minututik gora behar duten herritarrei gehiago kostatzen zaiela, eta, horrenbestez, Sigmara lekuz aldatu zutenetik hona, erosle kopuruak behera egin duela. Merkadilloko eroslearen perfilak ere izan dezake eraginik horretan: hamarretik lau (%40,5) 46 eta 65 urte bitarteko lagunak dira, eta bi, 65 urtetik gorakoak, eta nekez hartzen dute autoa, erosketak egitera irteten direnean.

Datu horiek aintzat hartuta, hiru leku aztertu dituzte: Plaza Handia, Leku Eder-Aita Agirre eta Madala. Azkenean, baina, Leku Eder eta Plaza Txikia batzen dituen gune horren alde egin dute, egokiena delakoan. Bost arrazoi eman dituzte horretarako: herri erdian dagoela, ez duela trafikoa zailduko, Plaza Txikian hogeita hamar aparkaleku arren, Sigman 50 berreskuratuko direla, sarrera-irteera egokiak eta irisgarritasun ona dituela, eta Sigman baino bezero gehiago erakarriko dituela. Era berean, merkadilloarako egokituko duten pasealeku berri horrek San Bartolome kaleko etxebizitzaren beharrei ere erantzungo diela uste dute. Izan ere, gero eta gehiago dira Plaza Txikira portalak ateratzen dituzten etxeak.

Merkadilloa herrigunera ekartzen dutenerako ordutegia ere adostu dute Udalak eta saltzaileak. Ordu bete izango dute saltzaileek mahaiak jartzeko, 7:00etatik 8:00etara, eta 14:30etan hasi beharko dute gauzak jasotzen, 15:30erako libre lagatzeko lekua. Era berean, salmenta postuak apurka-apurka berritzeko konpromisoa ere hartu dute saltzaileak, era horretan merkadilloa “erakargarriagoa” egiteko.

Aparkalekuekin zalantzan

Merkadilloa Plaza Txikira ekartzeak eguen goizetan erdigunean aparkatzeko lekuak gutxitzea ekarriko du ezinbestean. Horren harira, Udalak aitortu du oraindik ez daukala garbi aparkalekuen gaia nola konpondu. Bi aukera ikusten ditu: eguen goizetan Plaza Txikiko aparkaleku guztiak (40-45 inguru) merkadilloko saltzaileentzako gordetzea, edo erdiak bakarrik gordetzea eta gainerakoak herritarrentzako libre lagatzea. Nolanahi ere, Udalak, ez du aparteko arazorik ikusten hor. Batetik, merkadilloa herri erdira ekartzean, Sigman 50 aparkaleku geldituko direlako libre, eta, bestetik, Guass diskoteka bota ostean, inguru hartan aparkaleku berriak egitea aurreikusita daukalako.

HEMEROTEKA

☞ 2004KO UDA:

Udala merkadilloa lekuz aldatzea aztertzen ari zela zabaldu zen.

☞ 2004KO AZAROA:

Merkadilloaren heriotza antzeztu zuten azokako merkatariek, Plaza Handian. Merkadilloa Sigmara eramateak azokaren gain-behera ekarriko zuela salatu zuten.

☞ 2005EKO URTARRILA:

Elgoibarko sindikatu, alderdi politiko eta beste hainbat kolektibotako ordezkariak Elgoibar Bizirik plataforma aurkeztu zuten, Herriko Antzokian. “Merkadilloaren arazoa denon arazoa da, eta denok batera borrokatu behar dugu, Sigmara eraman ez dezaten” mezua zabaldu zuten.

☞ 2005EKO MARTXOA:

Elgoibar Bizirik plataformak deituta, erreferenduma egin zen. 3.378 lagunek bozkatu zuten, eta horietatik 3.356 lagun merkadilloa herri erdian mantentzearen alde agertu ziren.

☞ 2005EKO EKAINA:

Akordiorik gabe amaitu zen Udalak eta merkadilloko saltzaileek izan zuten bilera. Sigmako obrak amaitu bitartean, merkadilloa Plaza Txikian jartzeko proposatu zuten Udal Gobernuak, eta amaitu bezain laster, Sigmara joatea. Merkadilloko saltzaileak proposamenaren zati bat onartzeko prest agertu ziren, baina merkadilloa Sigmara eraman aurretik, herritarren iritzia entzuteko eskatu zioten Udalari. Ez ziren ados jarri.

☞ 2005EKO URRIA:

Udalak jakinarazi zuen 688.000 euro erabiliko zituela Sigmako aparkalekua egiteko. Proiektua Aikia S.L. enpresari eman zioten, lehiaketa bidez. Bi solairutako aparkalekua izango zela jakinarazi zuten, eta guztira, 96 autorentzako lekua egingo zutela. Einbiu Herri Plataformak obrak geldiarazteko eskatu zuen, baina Udalak aurrera egitea erabaki zuen.

☞ 2006KO URTARRILA:

Sigmako aparkalekua, gerora ostegunetako merkadilloaren kokalekua izango zena, estali zuten. 1.200 metro koadroko gunea. Lehenengo fase hori amaituta, ingurua txukuntzen hasi ziren.

☞ 2006KO EKAINA:

Merkadilloko saltzaile guztiak sinatu zuten Sigmara joateko lizentzia, batek izan ezik. Merkadilloaren kontuak luze jo zuela onartu zuen Marivi Agirregomezkorta alkateak, baina merkadilloa “bikaina” izango zela nabarmendu zuen. “Plaza Handitik 300 metrora dago Sigma, eta leku bikaina da merkadilloa jartzeko. Euria egiten duenean ez da arazorik izango, eta azkenean herritar eta saltzaile guztiak pozik egongo dira”. Ekaina bukaeran eraman zuten merkadilloa Sigmara.

☞ 2007KO MAIATZA:

Sigmara eraman zituztenetik, salmentak %70 murriztu zitzaizkiela salatu zuten merkadilloko saltzaileak. Udal Hauteskundeetan atarian, hautagaiei euren egoeraren berri eman eta jarrera bat edo beste hartzeko eskatu zioten maiatzaren 3an azokan bertan eskaini zuten prentsaurrekoan.

☞ 2010EKO APIRILA:

Merkadilloaren inguruko txosten bat aurkeztu zuten Alfredo Etxeberriak kazetariei, eta maiatzean merkadilloa Plaza Txikira eta Leku Ederrean ekarriko zutela jakinarazi zuten.



Herritarrak, erreferendumean bozkatzen, Plaza Handian.

Udaletxe aurrean egindako elkarretaratze bat.



Merka kontr...

ERREAKZIOAK

MARIA ANGELES GABILONDO, Txankakuako presidentea:

“Sigmara eraman aurretik ere guk argi esan genuen denon kalterako izango zela. Horrenbestez, nik uste dut denok eskertuko dugula orain hona, erdigunera, ekartzea, bai guretzat merkatariontzat eta baita herriarentzat oro har ere, ona delako. Hemen zegoenean mugimendu handia egoten zen kalean, eta nik uste dut hara eraman zutenean denok igarri genuela, bai merkadilloko saltzaileek eurek, bai guk eta baita merkadilloko bezeroek ere”.

MARI PLAZA, merkatu plazako saltzaileen ordezkaria:

“Guretzako ikaragarri albiste ona da. Aurretik ekarri izan balute, hobe, hori bai, baina albiste ona da, bai. Gure bezeroek ere gustura hartu dute berria, eta guk uste dugu denori egingo digula on. Kontuan izan behar dugu erdigunean adineko asko bizi direla, eta horiek ezin dutela urrutira joan erosketak egitera. Gazte jendeak autoa hartzen du, eta listo, baina jende askok ez dauka horretarako aukerarik. Guk, gainera, erosketak herrian egitera bultzatu behar ditugu. Oso erosoak bihurtu gara guztiok, eta jendeari erraztasunak eman ezean, eta dena eskura jarri ezean, jai daukagu.

Salmentetan ere igarri dugu merkadilloa Sigmara eraman izana. Ez diogu erru guztia merkadilloari botako, jakina, baina eragina izan du. Anbulatorioa hemen ondoan egon zenean ere, jende gehiago ibiltzen zen. Zalantzarik gabe, Plaza Txikia da merkadilloarentzako lekurik onena. Aparkatzeko leku gabe geldituko naiz ni neu ere, baina prest nago asteen behin sakrifizio hori egiteko, herriari bizia emateko eta merkatarioi laguntzeko erabakia den neurrian. Beste batzuetan ere gelditzen gara aparkalekurik gabe, dela ganadu feriagatik edo beste mila arrazoigatik”.

RAUL ARGAIZ, merkadilloko saltzaileen bozeramailea izandakoa

“Pozik hartu dugu berria. Berandu dator, baina gutxienez jabetu dira Marivi Agirregomezkorta eta haren taldeak egindako hanka sartzeaz. Merkadilloak herri erdian egon behar du derrigor, bizia

ematen diolako herriari berari eta baita merkatarioi ere. Sigmara eraman gintuztenetik galdu baino ez dugu egin. Salmentetan ikaragarri igarri dugu, %70 inguru jaitsi direlako, eta nik uste dut gehiago edo gutxiago, baina herriko dendariak ere nabarituko zutela. Garbi esan dezakedana da Sigman inor ez zebilela. Garbi dago jendeak ez duela gustuko leku hura, eta arrazoi asko eman daitezke. Bate-tik, herritarrek joerarik ez izatea hara joateko. Urtean zehar ere, han ez da ezer egoten. Aparkamentu bat da hura, leku ilun bat. Aparte dago, gainera, eta jende asko nekatuta iristen zen, ezertarako gogorik gabe.

Maiatzean mugituko gaituztela esan digute, baina negoziatioak ez dira amaitu oraindik, eta ikusi egin beharko dugu. Beste bilera bat falta da, eta nik uste dut orduan zehaztuko digutela data. Hala ere, obra batzuk ere egin beharko dituztela jakinarazi digute, eta batek daki noiz izango den, halakoetan sarri luzatu egiten delako dena. Guk geuk ere ez dugu nahi presaka etortzerik. Erabaki zuzena hartu dute, eta, orain, egin ditzagun gauzak ganoraz, eta ez presaka eta korrika”.

EZKER ABERTZALEA:

Merkadilloa erdigunean mantentzearen alde jardun zuten herritarrak zoriandu ditu ezker abertzaleak, eta kargu hartu dio EAJri, bere garaian, ez ziolako kasurik egin elgoibartarrek erreferendumean eman zuten iritzia, eta orain, berriz, “ezer gertatu ez balitz bezala”, atzera egin dutelako. “Hiru urte kostatu zaio merkadilloari buruzko era-



Elgoibar Bizirik plataformakoak,

Saltzaileak, merkadilloaren heriotza antzetzten.



a Sigmara eramatearen protesta ekitaldi bat.



Tentsio giroa, Plaza Handian.

bakia hartzea, lehenagotik ere garbi zegoenean. Behar ez zen ikerketa egiten dirua gastatu dute, emaitza jakin batera heltzeko”, salatu du. Hala, “PNVko alkatea merkadilloaren salbatzaile bezala agertzeko ahalegina” salatu du ezker abertzaleak. Merkadilloa “erdi hilda uztea” leporatu dio Udalari, eta merkatariei, merkadilloko saltzaileei eta herritarrei egindako kalteen ordaina exijitu dio. “Langileak eta herritarrrak sei urtez, astero, toki heze eta ilun batean eduki dituzte, euren errua ez onartzearen”, gehitu dute.

OVIDIO CAMPELLO (PSE-EE):

“Guk beti defendatu dugu merkadilloak erdigunean egon behar duela, eta, beraz, gustura gaude. Elgoibar Bizirik-ekin batera ibili ginen orduan ere, eta gerora ere lanean jardun dugu Ezker Batuarekin batera. Sigmara eramatea erabaki okerra izan zen, eta berandu bada ere, zuzendu dute behintzat! Hauteskunde kanpainaren barruan ulertu behar da erabaki hau. Hori garbi dago. Orain lortu behar duguna da eguenek garai batekoen itxura hartzea berriro ere.

JON PELI URIGUEN (EA):

“Badirudi azkenean erabaki dela merkadilloa herri erdira ekartzea. Badirudi diot, guk ziurtasunez duela gutxi jakin dugulako. EA alderdiaren aldetik pozik hartu dugu berri hori.

Egia esan, gai tirabiratsua izan da, eta alde biak akordio batera

heldu direla dirudi. Hori horrela izanik, eta akordioaren nondik nora-koak bere osotasunean ezagutzen ez baditugu ere, beti esan dugun moduan, gaiari irtenbidea emateko ezinbestekoa zen eztabaidatzea, eta batzuen iritziz zeuden eragozpenak eta besteen aldetik zeuden kexak bideratzea lortu denez, gustura egoteko albistea da”.

IZASKUN SORALUZE (Aralar) eta UNAI ZULAIKA (independentea):

“Poza eman digu azkenean herritarren nahia betetzeak. Gu hasieratik egon ginen erabaki honen kontra. [...] Ez dira ahazteko bezalako gertaerak. Baina badira ahaztu behar ez diren beste batzuk ere. Alfredo Etxeberria alkate jauna, garai haietan, Elgoibar Buru-batzarrekoa zela ere datu esanguratsua da, hau da, Elgoibarko Euzko Alderdi Jeltzalearen lehendakaria zela. Merkadilloa Sigmara eramatearen ondorioak Alfredoren eta Mariviren lanaren ondorio izan ziren, beraz. Zergatik orain erabaki aldaketa? Ez al zen horren ona herriarentzat? Gutxienez bi ikerketa, bi proiektu... zenbat milioi euroko gastua dago honen atzean? [...] Hau da mauka, hau, herri giroa itotzeko horrenbeste esfortzuren ostean, berriro ere erdigunera?” [...] Ezin dugu ahaztu pasatu dugun guztia, eta herritarren azken bost urteetan eta egungo koiuntura sozio-ekonomikoan izan dituen ondorio latzak”

JAVI NUÑEZ (PP):

“Merkadilloa Sigmara aldatu zutenean esan genuena berresten dugu guk orain. Guk uste dugu merkadilloa herri erdian jartzea bideragarria dela, beti ere ordutegiaren gaineko eta garbiketaren inguruko araudia betetzen bada. Guk geuk, alderdi popular moduan, ez dugu horren alde borroka egin, merkadilloko arduradun bakar batek ere ez digulako eskatu. Oposizioko beste alderdi politiko batzuegana jo dute, eta haiek esan beharko dute orain zerbait. Garbi dagoena da gai hau kutxan sartuta izan dutela, eta orain, legegintzaldia amaitzen ari denean, atera dutela, bistakoak diren interesengatik.



ferendumeako emaitza ospatzen.

Elgoibarko Lanbide Heziketari buruzko eskaintzaren berri eman zuten zapatuan IMHk eta Mekak

Ikasle ohien esperientziak entzuteko aukera izan zuten Kultur Etxeko sotoan

Elgoibarren dagoen Lanbide Heziketako eskaintzaren inguruko jardunaldiak egin ziren joan zen zapatuan, eta antolatzaileen esanetan, harrera ona izan zuen azokak, "gurasoen artean, batez ere". Heziketa zikloi eta txandakako ingeniartzari buruzko informazioa eskaintzeaz gain, ikasle ohien esperientziak entzuteko aukera izan zuten Kultur Etxeko sotora joan zirenek. Antolatzaileek esandakoaren arabera, herritarrek gustura entzun zituzten ikasle ohien adierazpenak.

Ikasleentzako jardunaldiak

Zapatuko azokaz gain, ikasleentzako jardunaldiak egin dituzte aste honetan, ikastetxeak herritarrengana hurbiltzeko asmoz. Atzo ate irekien eguna egin zuten Mekan, eta, bihar, IMH bisitatzeko aukera izango da, goizez. Bestalde, DBH 4. mailako ikasleek Danobat enpresa bisitatuko dute, enpresa mundua bertatik bertara ezagutzeko.



Urruzunoko babes ofizialeko etxeak saldu egingo dituzte



Urruzuno 2 eta 3 sektoreetako babes ofizialeko etxeak saldu egingo dituzte. 71 etxebizitza egingo dituzte, eta hasierako proiektuan alokairuan ematea aurreikusitazuten ere, azkenean saltzea erabaki dute Udalak eta Eusko Jaurlaritzak. Etxebidek banatuko ditu etxeok, eta 2009ko abenduaren 31 aurretik Etxebiden izena emanda zeudena sartuko dira zozketan. Horrez gain, ezinbestekoa da bi urtez Elgoibarren erroldatuta egotea.

Txankakua elkarteko bezeroek %5eko deskontua izango dute

Txankakua merkatarik elkarrekin kanpaina berria jarri du martxan, eta elkarteko bezeroek %5eko deskontua izango dute maiatzaren 15era arte, elikagaietan izan ezik. Horrez gain, produktuen katalogo berria kaleratu dute, eta elkarteko dendetan trukatu daitezke puntuak. Era berean, apirilean zehar, bost, hamar eta hogeituroko bonoak oparitu dituzte dendariak. Txankakua-ren txartela ateratzea doakoa da, eta txartel berri bakoitzak 150 puntu izaten ditu, produktuekin trukatzeko.



Jaia **Gazte Informazioaren Eguna**



Gazte Informazioaren Nazioarteko Eguna zela eta, Elgoibarko gazte informazio bulegoa kalera atera zen zapatuan. Gazteentzako zerbitzua ezagutzera eman, eta bide batez, Iñaki Garate gazte informatzaile berria aurkezteko aprobetxatu zuten. Jendea erakartzeko, tonbola antolatu zuten, gaztelekuarekin batera. Opari asko banatu zituzten: Realeko jokalarien kamisetak, Jasone Osororen liburuak eta abar. Antolatzaileek esandakoaren arabera, ehun lagun inguru ibili ziren, eta "jai arrakastatsua" izan zela adierazi dute.

Zenbakia **146**

2009. urtean 146 ume jaio ziren Elgoibarren, 2008an baino 22 gehiago, hain zuzen ere. Azken urteotan jaiotze tasak gora egin du, eta iaiz ere joera hori mantendu zen. Adituek diotenez, udaberrian jaiotzen dira normalean ume gehien, eta Elgoibarren ere halaxe izan zen. Maiatzean hogeit hamar ume jaio ziren. Gutxien, berriz, abuztuaren jaio ziren: sei.

Irudia **Plaza Handia**

Aste honetan jendez gainezka egon da Plaza Handia. Umeak jolasean eta gurasoak terrazan eserita. Eguraldi ona hasi da, eta termometroak gora egin du. Uda giroa izan da nagusi. Negua gogorra izan da, eta eguzki izpien bila irten dira elgoibartarrak kalera. Landareek bezala, gizakiak ere eguzkiaren beharra dauka bizitzeko. Elgoibartarrek eguzki gosea asetzeko aprobetxatu dute.



Udan Saharako umeak ekartzeko kanpaina

Udan Saharako umeak ekartzeko kanpaina jarriko du martxan Elgoibarko Udalak. Programa honetan parte hartu nahi dutenek udaletxeko Ongizate Sailean (943 741 008) eman behar dute izena, maiatzaren 15a baino lehen.

Patata tortilla lehiaketa egingo dute Altzolan

Altzolako Zubibai elkarteak patata tortilla lehiaketa antolatu du, domekarako. Edonork hartu dezake parte, baina bakoitzak tortilla bat aurkeztu ahal izango du. Tortillak egiteko patatak, arrautzak, olioak eta gatza bakarrik erabili daitezke. Tortillak 13:00etarako aurkeztu behar dira. Zubibai elkarteko hiru lagunek osatuko dute epaimahaia, eta tortilla irabazleak 50 euroko saria jasoko du. Bigarren sailkatuak 20 euro jasoko ditu.

1960koen kinto bazkaria

1960an jaiotako elgoibartarrek bazkaria egingo dute ekainaren 5ean, Sigma jatetxean. Interesatuak 85 euro sartu beharko dituzte maiatzaren 5a baino lehen, ondorengo kontu korrontean: 2101 0205 72 0012579165.

Lourdesera erromesaldia maiatzaren 28tik 31ra

Donostiako Elizbarrutiak antolatuta, Lourdesera erromesaldia egingo dute maiatzaren 28tik 31ra. Etxean gaixoak dituztenek edo laguntzera joan nahi dutenek ondorengo telefonora deitu dezakete: 943 741 319 / 661 692 246

Ezintasun fisikoak dituzten pertsonentzako oporrak

Ezintasun fisikoak dituzten pertsonentzako opor egitaraua prestatu du Foru Aldundiak udarako. Interesatuak udaletxeko Ongizate Sailean eskatu dezakete informazio gehiago.

Plaza Txikira eta Leku Ederrera ekarriko dute maiatzean merkadilloa.

Zer iruditzen zaizu merkadilloa herri erdira ekartzea?



Eudosa Fernandez
73 urte, etxeakoandrea

Ni poztu naiz. Herri barruan askoz hobeto dago merkadilloa. Herriari beste bizitasun bat ematen dio, eta dendariei eta tabernariei ere mesede egingo die. Nik uste dut jendeak oso gustura hartuko duela, Sigmara eraman zutenean jende asko haserretu zelako.



M. Karmen Barandiaran
64 urte, etxeakoandrea

Niretzako askoz hobetu dago herri barruan, Sigmara jendea ez delako joaten. Sigman egon denean, igarri ere ez zen egiten merkadillo eguna zela. Ni Santa Anan bizi naiz, eta joan ere ez nintzen egiten azkenaldian. Plaza Txikian jarriz gero, errazago joango naiz neu ere.



Luis Berdonzes
73 urte, jubilatua

Oso ondo iruditzen zait. Aurretik ekarri behar zuten. Eskerrak alkate hau konturatu den lehengoak egingako hutsegiteaz! Nik uste dut leku onena dela. Kale erdian dago, eta autobusa ere bertan dago. Merkadilloak bizia ematen du. Sigmako zulo ilun hartara zein joango da ba!



Santos Sanchez
87 urte, jubilatua

Albiste ona da. Ez dut ulertzen nola eraman zuten Sigmara. Hango tabernariak irabaziko zuen zerbait, baina beste askoren kalterako izan zen erabaki hura. Hemen herri erdi-erdian dago, eta Sigmara joateko errepidea eta dena pasatu behar da. Oso leku iluna da, gainera.

BIRZIKLATZEKO BEREIZTU

EDUKIONTZI



HORIA

**Plastikozko ontziak,
latak eta brick
motako ontziak**



DEBABARRENA
NANKOMUNITATEA

**Kartoizko eta
paperezko ontziak,
egunkariak eta
aldizkariak bakarrik**

EDUKIONTZI



URDINA



ZUPEI ESKUETAN DAGO BEREIZTEA,
BIRZIKLATZEA GUZTIAN ESKUETAN DAGO





Toletxe aurreko berdegunea oso zikina dago: "Toletxe aurreko berdegunea egoera tamalgarrian dago. Zabortegitzat erabiltzen dute askok, eta zikinkeriz beteta egoten da. Kristalak eta bestelako zabor ugari pilatzen da. Nire ustez, ingurune horri probetxu gehiago atera ahal zaio. Ez dakit Udalak zer egin nahi duen berdegune horretan, baina ezer ez dagoen bitartean, parke txiki bat edo antzerako zeozer egin daitekeela iruditzen zait. Leku eguzkitsua da, eta herritar guztien eskura dago. Pedro Muguruza etorbidea oso ondo geratu da obrak egin ondoren, eta parke polit batekin, bikain geratuko litzateke".



Bidea zuloz beteta dago Arregitorre inguruan: "Mekanika eta Institutuaren artean zuloz beteta dago lurra. Autoz jaitsi nintzen lehengo batean Erretxindi ingurutik, eta zuloak ez zapaltzearren, beste auto baten kontra jo nuen ia-ia. Ez dut uste lan zaila izango denik zulo horiek estaltzea. Dagokionak, egin dezala, mesedez".



Trenbide kaleko aparkalekuko zuloa konpondu dute: "Bazen ordua! Azkenean estali dute Trenbide kaleko aparkaleku sarrean zegoen zuloa. Aparkaleku hori oso estua da, eta lurrean zegoen zuloak traba handia egiten zuen. Mila esker".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

ESKERTZA

JUAN JOSE GORROTXATEGI OSORO

"Planti"

2010eko martxoaren 16an hil zen Durangon, 76 urte zituela.

Haren oroimenez meza izango da, domekan, apirilak 25, eguerdiko 12:00etan, Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



I. URTEURRENA

IGNACIO GARATE GOIHARTZUN

2009ko apirilaren 30ean hil zen, 88 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, barixakuan, apirilak 30, arratsaldeko 19:00etan, Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



alaitz egaña

12 urte

Zein da gehien gustatzen zaizun urtaroa?

Uda, eguraldi ona egiten duelako. Udalekuetan ibiltzen naiz, eta lagunekin joaten naiz igerilekura.

Mendia ala hondartza?

Hondartza! Lehen joaten nintzen mendira, baina orain ez asko.

Oporretan joateko leku bat?

Leku askotara joango nintzateke. Normalean, camping-etara joaten gara.

Joango zinateke beste herriren batera bizitzera?

Ez! Hemen ditut lagun guztiak, eta beharrezko gutzia daukat Elgoibarren.

Zure lagunik onenaren bikotekidearekin maitemindu zara. Zer egingo zenuke?

Lagunari esango nioke, eta saiatuko nintzateke gure artean ez haserretzen.

Elgoibarko alkatea bazina, zer egingo zenuke?

Nire adineko jendearentzako jantzi dendak jarriko nituzte. Ez dago, eta kanpora joan behar izaten dut.

Elgoibarko lekurik politena?

Plaza Txikiko arkupeetan egoten gara beti, eta ingurune hori gustatzen zait asko.

Eta, zatarrena?

Elgoibarren ez dago leku zatarrik.

Zertarako nahiko zenuke 18 urte izatea?

Gidabaimena atera, autoa edukitzeko.

Non ikusten duzu zure burua hamar urte barri?

Ikasten jarraitzeko asmoa daukat. Lagunekin eta familiakoekin egongo naiz. Aldaketa handirik gabe.

Zerk ematen dizu beldurra?

Txikitan amets gaiztoak izaten nituen, baina orain ez daukat beldurrik.



Irteera



Herri Eskolakoak Andasto mendian

Herri Eskolako Kalamua Guraso elkarteak antolatuta, Andasto mendira egin zuten irteera joan zen domekan. Eguraldi ona izan zuten goiz partean, eta gailurrean atera zuten erretratua, atzean Anboto mendia zutela.



Magia egiten jakingo bazenu, zer egingo zenuke?

Unai Stockert

7 urte

Harry Potter-ek bezala, magia egingo nuke, eta pobreei, Afrikakoei, 10 edo 100 euro eman- go nizkiekei. Taber- nak ipiniko nituzke, eta janaria ez zen inoiz amaituko. Bes- tela, berriz magia egin eta zerutik eroriko litzateke janaria.



Aritz Goikoetxea

6 urte

Etxe bat munstro bilakatu- ko nuke, baina nire etxea ez, eta amonarena ere ez. Munstro txikitxo bat izango litzateke, beltza. Nik zapaldu egingo nuke, munstroa gaiztoa delako. Munstro handiek beldurra ematen didate, baina txi- kiek ez.



Nagore San Andres

7 urte

Paperezko etxe bat egingo nuke, bi solairu- koa. Paper gogorra erabiliko nuke, euria eta haizea ondo jasa- teko. Kolore laranja, horiaz eta urdinaz mar- gotuko nuke. Nire loge- lak leiho bat izango luke goiko aldean, nire ahizpa- rekin hegan joateko.



Maialen Alonso

6 urte

Etxean dauzkadan pa- perak goxoki bihurtuko nituzke, lagunei ema- teko. Zapore askotako goxokiak gustatzen zaizkit. Hegan ere egingo nuke. Karaka- tera igo eta Elgoibar gainetik ibiliko nintza- teke.



Telmo Roldan

6 urte

Nik badakit magia egiten! Barita magikoa daukat, eta paper azpian ezkuta- tzen dut, jendea kontura- tu gabe. Bestela, esponja batzuk ipintzen ditut botila gainean, tapatu eta botilan sartzen ditut. DVD bat daukat, eta trukoak inori ez kontatzeko esaten dute.



Elene Zabala

6 urte

Gaizki portatzen dena igel edo tomate bihur- tuko nuke. Eta zaldi bat edukiko nuke, bere gai- nean lo egiteko. Nire burua bere buru gaine- an, eta hankak zaldia- ren gorputz gainean ja- rrita.



Loureiroko musika bandak kontzertua eskainiko du bihar San Bartolome parrokian, 22:00etatik aurrera

1899an sortu zen talde portugaldarra, eta ibilbide horretan hainbat sari eskuratu ditu



Egoibarko Udal musika bandaren 125. urteurreneko ospakizunen barruan, Loureiroko (Portugal) musika bandak kontzertua eskainiko du bihar. Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengoan, lau pieza joko dituzte, eta bigarren zatian, hiru. Kontzertua 22:00etan hasiko da San Bartolome parrokian, eta doan izango da. Loureiroko musika banda 71 lagunek osatzen dute gaur egun, eta gehienak gazteak dira. 110 urteko historia dauka taldeak, eta urte horietan guztietan ez du etenik izan. 1899an sortu zuten musika banda, Armonia Loreirense izenarekin. Talde portugaldarrak sari ugari jaso ditu Banda Filarmonikoen eskualdeko eta nazio mailako lehiaketetan, eta Loureiroko Parrokiako Biltzarrak Ohore eta Merituen Urrezko domina eman zion.

Aurten ez da egongo Instrumentu Taldeen Lehiaketarik

Biharko iragarrita zegoen El-goibar Hiria instrumentu lehiaketa, baina Inazio Bereziartua musika eskolak jakinarazi duenez, bertan behera laga dute, talde gutxik eman dutelako izena. Zortzi urtez antolatu izan dute lehiaketa, eta Euskal Herri guztiko taldeek hartu izan dute parte: “Urtero 30 talde inguru etorri dira lehiaketara, baina aurten hamabi taldek bakarrik eman dute izena”, adierazi du Mari Jose Zubiaurrek. Datorren urterako lehiaketari “beste forma bat” ematen saiatuko direla gaineratu du.



Mugaldekoak telesaila emango dute Herriko Antzokian

Gerra ostean girotutako telesaila ekoiztu du ETBk, eta martitzenean Herriko Antzokian ikusteko aukera izango da. Produkzioaren gaia historikoa da: Comette Sarea. Bigarren Mundu Gerran, Europako lerroetan jausten ziren hegazkin gidari ingelesak, euskaldun mugalarien laguntzaz, beren jatorrizko herrietara bidaltzeko eratu zen nazioarteko sarea da Comette Sarea. 20:30ean hasiko da saioa, eta 90 minutuko iraupena izango du. Emanaldia doan izango da.

Azken zapatuko feriak eta garagardo azokak bat egingo dute asteburuan

Antolatzaileek 8.000 litro garagardo inguru dituzte herritarren artean banatzeko

Atzo inauguratu zuten garagardo azoka, eta domekara arte egongo da zabalik, Madalako parkean, Trinitateetako Nagusien Danborradak antolatuta. Zazpi garagardo mota dastatzeko aukera izango da, ohikoak eta alkoholik gabekoak ere bai. Guztira, 8.000 litro garagardo dituzte antolatzaileek elgoibartarren artean banatzeko prest. Jatekoetan, bestalde, 500 txerri ukondo eta 1.000 saltxitxa aurreikusi dituzte. Janaz eta edanaz gain, Kirkilen disko festak girotuko du azoka, eta Bikustik talde elgoibartarraren musika emanaldia ere izango da. 19:00etan zabalduko dute gaur azoka, bihar 13:00etan eta domekan 12:00etan. Kale Kantariak ere arituko dira, musika giroa jartzen.

Azken zapatuko feria

Bihar, bestalde, azken zapatuko feria izango da. Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da Nafarroa Plazan, eta Plaza Txikian gaudu jarriko dute salgai. Txosna CD Elgoibarrek kudeatuko du hilabete honetan ere, eta herriko baserrietako produktuekin eginiko patata tortilla pintxoak salduko dituzte. Gabi jatetxean, bestalde, baserrietako produktuekin eginiko pintxoak salduko dituzte, eta, bazkaltzeko, baserriko menua izango da. Trikitilariak jardungo dute giroa alaitzen.



Martxoko feria babarrunak prestatu zituen CD Elgoibarrek.

Debabarreneko 200 dantzarik hartuko dute parte Mendaroko 'Dantza Barran', datorren egunean



Biraka dantza elkarteak antolatuta eta Nazioarteko Dantza Egunarekin bat eginenez, 'Dantza Barra' ikuskizuna izango da datorren egunean, Mendaroko Herriko Enparantzan. Deba, Mendaro, Elbar eta Elgoibarko 200 dantzarik hartuko dute parte, eta, munduko beste hainbat lekutan bezala, Dantzaren Nazioarteko Eguneko eskutitza irakurriko dute. Aurten, Julio Bocca dantzari eta koreografo argentinarra idatzi du. Dantzaldia 18:30ean hasiko da, eta, helburua ikasleek dantza eskoletan egiten dutena ezagutaraztea izango da.

Munlet taldeak disko berria kaleratu du

Munlet talde mendarorarrak Cañon izeneko diskoa kaleratu du, Gaztelupeko Hotsak disketxearekin. Pop, rock, punk eta musika elektronikoko hamabost abestiz osatuta dago mendarorren bigarren diskoa. Munlet taldeak Pop-rock Villa de Bilbao lehiaketa irabazi zuen iaz, eta Euskal Herriko talde onenaren saria jaso zuen.

Disko berriaren bira datorren barixakuan hasiko dute, Donostian.



Unai Valle eta Igor Castañares onenen artean, Zumaiako zaldi lasterketan

Bigarren eta hirugarren sailkatu dira, hurrenez hurren



Ezkerretik bigarrena Castañares, eta 12 zenbakiarekin, Unai Valle.

San Telmo jaietako egitarauaren barruan, zaldi lasterketa jokatu zen domekan Zumaiako Itzurun hondartzan, eta Unai Valle eta Igor Castañares elgoibartarrek bigarren eta hirugarren egin zuten, hurrenez hurren. Hogei lagunek parte hartu zuten zaldi lasterketan, eta ehunka ikusle batu ziren hondartzan, azkeneko urteotan izen handia lortu duen proba ikusteko. Zirkuitu obalatu bati lau buelta eman behar izan zizkioten, 1.200 metroko ibilbidea osatuz, eta kanporaketa guztiak jokatu ostean, zortzi lagun sailkatu ziren finalerako. Finalean, Xanti Telleria lasartearra nagusi zen, eta haren hurrengo helmugaratu ziren bi elgoibartarrak.

Hiru elgoibartarrek parte hartu zuten domekan, Arrigorriagako duatloian

Arrigorriagako duatloia jokatu zen domekan, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko zirkuitoko probarik gogorrena, eta Urgaziko hiru kidek parte hartu zuten bertan: Jose Antonio Ruizek, Javi Fernandezek eta Mikel Calvok.

136 gizonezko eta bost emakumezko irten ziren, eta ibilbide gogorra osatu behar izan zuten guztiek. Korrika egin zituzten lehenengo hamabi kilometroak, bizikletan hurrengo 75ak, eta berriz ere, korrika azkeneko hamabiak. Jose Antonio Ruiz eta Javi Fernandez elgoibartarrak oso ongi moldatu ziren, baina Mikel Calvok ezin izan zuen azken sektorea osatu. Gizonezkoetan, Patxi Vila nagusitu zen, eta emakumezkoetan, berriz, Inmaculada Ruiz.

Era berean, 2010. urteko Euskadiko distantzia luzeko duatloi txapelketa ere jokatu zen, eta Inmaculada Ruizek eta Alex



Jose Antonio Ruiz, lehen elgoibartarra.

Agirretzek, Elgoibarren bizi izan den errenteriarrek, irabazi zuten.

Urgazik, bestalde, jakinarazi du blog berria duela. Honako hau duzue helbide berria: <http://urgazi.blogspot.com>

Mendi bizikletako irteera Anbotora

Morkaiko Mendizale Elkarteak mendi bizikletako irteera antolatu du. Bihar izango da, eta Anbotori buelta emango diote. 42 kilometroko ibilbidea da eginbeharrekoa, eta 820 metroko desnibela du. Izena ematen duten guztiak Elgoibarko tren geltokitik abiatuko dira, 8:50ean, eta trenez egingo dute Elgoibartik Abadiñora arteko bidea. Ondoren, Abadiñotik Urkiolara igoko dira bizikletaz, eta Zabalandi, Tellamendi eta Besaide zeharkatu ostean, Abadiñoko tren geltokian bukatuko dute itzulia.

Kirol Udalekuak

Kirol Patronatuak jakinarazi du maiatzaren 3an hasiko dela kirol udalekuetan izena emateko epea. Ekainaren 28tik uztailaren 23ra bitartean hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute 1997 eta 2003 urteen artean jaiotako neska-mutilek. Informazio gehiago kiroldegian eskuratu daiteke.

'Bizitza izarren artean' ikus-entzunezkoa

Morkaikok antolatuta, *Bizitza izarren artean* bideo emanaldia izango da datorren eguaztenean. Mendiaren inguruko ezohiko ikus-entzunezkoa izango da. Patricia Viscarret eta Alberto Urtaşun izango dira hizlariak, eta ezintasunak dituzten pertsonen mendiarekiko eta eskiarekiko duten ilusioa islatuko dute. 21:30ean hasiko da saioa, musika eskolako auditorioan.

Elgoibar Hiria lasterketa, bihar

Lagun taldeak antolatuta, jubel mailako Elgoibar Hiria lasterketa jokatu dute, bihar. 16:30ean irtengo dira txirridulariak Plaza Handitik, eta helmuga Santa Klaran izango da.

600 lagun baino gehiagok hartuko dute parte Jose Gurrutxaga Krosean

16 urtetik gorako edonork hartu dezake parte

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Jose Gurrutxaga krosa jokatu da domekan, eta dagoeneko 606 lagunek eman dute izena. Azken urteotan bezala, 16 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta azken unean ere izango da izena emateko aukera. Jaiotze dataren arabera banatu dituzte lasterketak. Guztira, lau lasterketa izango dira. Lehenengoa 10:30ean hasiko da, eta azkena 12:00etan. Irteera Jose Gurrutxagak berak emango du, eta sariak ere berak banatuko ditu. Atletismoaren jai Plaza Handian izango da.



Hilaren 30ean amaituko da 40-15 elkarteak antolatutako tenis txapelketan izena emateko epea

40-15 elkarteak tenis txapelketa antolatu du, eta izena emateko azken eguna apirilaren 30a izango da. 14 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta interesatuek 15 euro ordaindu beharko dituzte. Partidak maiatzean, ekainean eta uztailean jokatu dira. Informazio gehiago eskuratzeko, ondorengo telefono zenbakietara deitu behar da: 637 990 159 edo 696 577 872.

Grupo Eibar taldeak Espainiako Eskubaloi Txapelketa jokatu du asteburuan

Sanlo elkarteko Grupo Eibar taldeak Espainiako Eskubaloi Txapelketa jokatu du, jubenil mailan. Baraiñen izango da txapelketa, eta lau taldek hartuko dute parte: C.H. Amposta (Kataluniako txapelduna), S.D. Lagunak (Nafarroako txapelduna), Gettasur (Madrilgo txapeldunordea) eta Grupo Eibar (Euskadiko txapelduna). Lau horien artean irabazten duenak Espainiako finala jokatu du.



Bestalde, infantil nesken Lauko taldeak Foru Aldundiaren Trofeo finala jokatu du, domekan.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi **3** – Aretxabaleta **1** (3. maila)
 Elgoibar **2** – Orioko **3** (Erreg.)
 Urola **0** – Elgoibar **2** (Jub.)
 Elgoibar **3** – Usurbil **1** (Kad A)
 Soraluze **2** – Elgoibar **5** (Kad B)
 Ondarroa **1** – Elgoibar **1** (Inf.)
 Elgoibar **0** – Real Sociedad **7** (Txiki)
 Ordizia **7** – Elgoibar **2** (Aleb.)
 Elgoibar **0** – Eibar **1** (Nesk.)

ARETO FUTBOLA

Lakuntza **2** – Concepto Createch **5** (Nazional B)

ESKUBALOIA

Txariduna Elg. **10** – Bankoa Elg. **23** (Inf. mut.)
 Ikus Elg. **19** – Bera Bera **13** (Inf. nesk.)
 Lezo **9** – Aterpe **18** (Inf. nesk.)
 Astigarraga Elg. **29** – Pulpo **10** (Inf. nesk.)
 Egia **25** – Lauko Elg. **32** (Inf. nesk.)
 Trapagaran **27** – Alkorta Elg. **30** (Sen. mut.)
 Rotulas Studio **20** – Berstain Elg. **23** (Jub. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 24

16:00 Concepto Createch – Allerru (Nazional B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 24

12:30 Elgoibar – Urki (Ohorezko inf.)

16:30 Elgoibar – Oiartzun (Ohorezko jub.)

Domeka, 25

10:00 Elgoibar – Arrasate (Aleb.)

11:30 Elgoibar – Urki (Kad. B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 24

11:00 Astigarraga Elg. – Leitzaran (Inf. nesk.)

12:15 Ikus Elg. – Zarautz A (Inf. nesk.)

18:00 Berstain Elg. – Hondarribia (Jub. mut.)

20:00 Alkorta Elg. – Egia (Sen. mut.)

ESKU PILOTA

Domeka, 25

11:00 Lagunak – Bergara (Kad.)

12:00 Lagunak B – Aretxabaleta (Kad.)

IDARRAGA SARIAK

1. Guinea 78 p.
2. Larrea 65 p.
3. Iker 54 p.
4. Gabilondo 48 p.

LANA

ESKAERA

- Neska gaztea eskaintzen da adineko jendea zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. ☎ **666 771 701**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo haurrak zaintzeko eta portalak garbitzeko. ☎ **638 344 377 / 943 530 795**
- Gizon bat eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako, igeltsero lanetarako, banatzaile aritzeko edo pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ **638 344 377**
- Neska gaztea eskaintzen da tabernako sukaldean lane egiteko, garbiketa lanetarako edo haurrak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **657 142 376**
- 23 urteko neska euskaldun bat eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko, umeak zaintzeko edo etxeak garbitzeko. ☎ **696 794 107**
- Sukalde laguntzaile aritzeko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta portalak edo soziedadeak garbitzeko prest. Edozein ordutan lan egiteko prest. ☎ **699 609 190**
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **618 163 061**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo internan. ☎ **686 234 612**
- Neska, arratsalde edo gauaz lan egiteko prest. ☎ **646 821 678**
- Neska lanerako prest: garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **613 786 976**
- Neska lanerako prest: garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **646 235 195 / 943 531 903**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaintzeko edo beste edozer lan egiteko gertu. ☎ **649 808 071**

- Mutila, nagusiak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **649 808 071**
- Mutila, nagusiak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **648 143 804**
- Gizona zerbitzari, garbitzaile edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. ☎ **686 077 316**
- Neska, arratsalde edo gauaz lan egiteko prest. ☎ **646 821 678**
- Emakumea lan bila. Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Edozein ordutegi. ☎ **638 344 377**
- Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da emakume bat. ☎ **660 511 781**
- Neska gaztea eskaintzen da adineko jendea zaintzeko. Interna moduan aritzeko prest. Esperientziaduna eta erreferentzia onekoa. ☎ **677 155 611 / 943 030 828**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna nahiz orduka. ☎ **662 247 584**
- Emakumea lan bila. Helduak eta haurrak zaintzeko edo elkarte eta tabernetan garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **618 163 061**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest: elektrizista lanak, peoi... ☎ **606 612 834**
- Neska lan bila. Umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta sukaldari laguntzaile aritzeko. ☎ **680 516 240 / 943 531 514**

- Pisua salgai Pedro Muguruza etorbidean. 68m2, garajea eta ganbara. ☎ **678 883 051/943 742 808 (gauaz)**
- Etxea konpartitzeko pertsona behar da. ☎ **648 210 852**
- Etxea alokatzen da Santa Ana kalean. 3 logela. 525 euro (gastuak barne). ☎ **629 314 242**

GARAJEAK ETA MOTORRA

- Audi A4 2.5 TDI autoa salgai. Quattro, triptronic, larua, 17ko llantak, 165.000 kilometro, 2003 urtekoa. Egoera onean, merke. ☎ **651 819 582**
- Autokarabana merkea salgai. Benimar Europe 6000. ☎ **638 422 340**
- Honda CBR 600 motoa salgai. 1998koa, 46.000 kilometro. 2.400 euro. ☎ **697 575 645**
- Opel Astra 2.0 DTI Confort autoa salgai. 1999koa. 110.000 kilometro, hiru ate, llantak, aleroia, aire egokietua, CD kargadorea. ☎ **635 208 887**
- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron, udaletxetik gertu. ☎ **628 764 686**

BESTELAKOAK

- Santa Ana kalean 1957ko argazki bat aurkitu dut. San Pedron aterata dago. Udaltzaingoa laga dut.
- Edesa L-956T garbigailua salgai. 6 kilogramokoa, Practica modeloa. Berria. 100 euro. ☎ **679 767 589**
- Alpino arrazako akerrak eta Espainiar arrazako molaxal salgai. ☎ **650 091 069**
- Betaurrekoak aurkitu ditut Andikanorako bidean. Ezkontza eraztun bat ere aurkitu nuen orain dela hilabete guturu. ☎ **943 741 860**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA


- Lokala traspasatzen da Pedro Muguruza etorbidean. Jatetxea etxebizitzarekin. ☎ **635 751 642**
- Conilen (Cadiz) apartamentu zoragarriak alokatzen dira. Garajeekin. ☎ **653 733 457**



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilon, 2 - 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRITZATZEAK - PINTAKETA



S.COOP BUKATU.
OLASO Poligono Industrial - Olaso kale, 6
66. area - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Htt: www.bukatu.es




MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Jose Angel Zabala
MAHASTI
Urdaitegia eta arlandegia
Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



• Zorionak, **Aitor**, 6 urte egin dituzulako. Muxu handiak Ion, Asier, Unai, Olatz, Garazi, Uxue, Elur eta amona Ankoraren partez.



• Zorionak, **Unax**, astelehenean zure eguna izan zelako. Familiakoen eta lagunen partez. Muxu potolo bat.




• Zorionak, **printzesa!** Azkenean 7 urte! Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Nahiaren partez.



• Zorionak, **Nerea**, zure 3. urtebetetzean. Muxu handi bat Joao eta Leireren partez.



• Zorionak, **Iratx**, domekan 5 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Beñat**, 5 urte egin dituzulako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Nere**, zure 3. urtebetetzean. Ahizpa Ane, lagun Aritz eta Maialenen eta etxekoan partez.



• Zorionak, **Nerea**, 11 urte egin dituzulako. Muxu erraldoi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Paula**, zure urtebetetzea izan delako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Uratiz**, bihar 9 urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Etxekoan, eta bereziki, Laia, Garazi eta Naroaren partez.



• Zorionak, **Beñat**, apirilaren 26an 4 urte egingo dituzulako. Gurasoen, eta bereziki, Xabiren partez.



• Zorionak gure etxeko nagusienari. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Leirel** Lau patxo handi gure apirilako lotretxoari. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Ion**, gure txapelduna! Etxekoan, eta bereziki, Janireren eta Maitaneren partez.



• Zorionak, **Aiur**, martitzen 2 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat familiakoen partez.



• Zorionak, **printzesa!** Iritsi zaizu bost kandela itzaltzeko eguna. Ondo pasa! Patxo handi bat etxekoan, eta bereziki, Noraren partez.



• Zorionak, **Maddi** printzesa, atzo 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Jokinen partez.



• Zorionak, **Haizart**, zure 5. urtebetetzean. Gurasoen eta arreba Laieneren partez.



• Zorionak, **Galder**, 4 urte egin dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Jon eta Lucia**, zuen 5. urtebetetzean. Familiakoan partez.



• Zorionak, **Josu eta Unai**, apirilaren 25ean 7 urte egingo dituzuelako. Etxekoan partez.

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIA

25 domeka FOTERO

FARMAZIAK

	24 ORDUZ
23	Fernandez
24	Yudego
25	Yudego
26	Zabaleta
27	Etxeberria (Errosario)
28	Ibañez
29	Garitaonandia
30	Etxeberria (Santa Ana)

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638


Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik
www.elgoiBARREN.net



23 barixakua

Jai
19:00 Garagardo jai
Nagusien Danborradak antolatuta, domekara arte egongo da Madalako parkean.

Musika
19:00 Entsegua
Kale Kantariak entsegua egingo dute, domekan abesteko. Kultur Etxeko sotoan.

Ikus-entzunezkoa
22:15 Monologoak
Lojantzi tabernak antolatuta, monologo saioa izango da, Herriko Antzokian.

24 zapatua

Azoka
9:00 Hileko azken zapatuko feria

Elgoibarko baserrietako produktak erosteko aukera izango da, Nafarroa Plazan. Abeltzainek animaliak jarriko dituzte ikusgai Plaza Txikian.

Kirola
16:30 Elgoibar Hiria saria
Lagun taldeak antolatuta, jubenil mailako txirindulari lasterketa. Irteera, Plaza Handian, eta helmuga, Santa Klaran.

Musika
22:00 Loureiroko musika bandaren kontzertua
Elgoibarko Udal Musika Bandaren 125. urteurrena dela-eta, Por-

tugaldik etorritako musika bandak kontzertua eskainiko du, San Bartolome parrokian.

25 domeka

Kirola
10:30 Jose Gurutxaga haur krosa
Elgoibar Ikastolak antolatuta, Plaza Handian.

Musika
12:00 Kale Kantariak
Elgoibarko Kale Kantariak irtengo dira, garagardo feria girotzeko asmoz.

Lehiaketa
13:00 Patata tortilla lehiaketa
Zubibai elkarteak antolatuta, Altzolako frontoian.

GAZTELEKUKO EKINTZAK	
	BARIXAKUA 23
	Wii 17:00
	ZAPATUA 24
	Beldurrezko zinema zikloa 17:00
	DOMEKA 25
	Beldurrezko zinema zikloa 17:00
	MARTITZENA 27
	Eskulanak: lorontziak 17:00
	EGUAZTENA 28
	Txoko pribatua 17:00
	EGUENA 29
	Sukalde txokoa 17:00

LUDOTEKAKO EKINTZAK	
	BARIXAKUA 23
	Marrakzi txokoa 17:30
	ASTELEHENA 26
	Karaokea 17:30
	MARTITZENA 27
	Gorputz espresioa 17:30
	EGUAZTENA 28
	Non dago, Ludo? 17:30
	EGUENA 22
	Eskulanak 17:30

«Shutter island»

24, zapatua: 19:00/22:15
25, domeka: 19:00
26, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2010. Zuz.: Martin Scorsese. Akt.: Leonardo DiCaprio, Mark Ruffalo, Ben Kingsley. 138 min. Teddy Daniels eta Chuck Aule agente fe-

deralak uharte batera bidaliko dituzte, hiltzaile arriskutsu baten desagertzea ikertzera. Hiltzailea ospitale psikiatriko batetik desagertu da.



26 astelehena

Tailerra

17:00 Arte tailerra

Haizeak antolatuta, *La Libertad guiando al pueblo* obra landuko dute, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

27 martitzena

Tailerra

18:00 Literatura tailerra

Haizeak antolatuta, *El guardian entre el centeno* liburua landuko dute, liburutegian.

28 eguaztena

Ikus-entzunezkoa

21:30 'Bizitza izarren artean'

Patricia Biscarret eta Alberto Urtasun mendizaleek eskainiko dute bideo emanaldia. Musika eskolako auditorioan.

30 barixakua

Erakusketa

19:00 Argazki erakusketa

Julian Negredok Auschwitz kontzentrazio esparruari buruzko erakusketa inauguratuko du. Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da ikusgai, maiatzaren 15era arte.

Atxutxiamaikako

UDALEKU IREKIAN LAN EGITEKO HEZITZAILEAK BEHAR DIRA.

Interesatuok bidali curriculuma maiatzaren 4a baino lehen aisia.euskalduntzen@elgoibarkoizarra.com helbidera.

Tel: 943 74 16 26 (Idoia)



CORDON
VILARCHAO

San Roke, 7 behean
Pel. Oitso - Oitsope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 740 576

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zoluei ezarriak
Lantadura: eguzi, aluminio, PVC
Pintura orokorra



Zerikasi

IKASTARROAK

Web dinamikoaren garapena

Norentzat: Diseinatzaileentzat eta webmasterentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiera data: 2010-05-01 / Bukaera data: 2010-05-28
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 821 426

Uretako sorospena

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gaztelaniaz
Hasiera data: 2010-05-01 / Bukaera data: 2010-05-30
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 176 249

Itsaspeko argazkilaritza

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gaztelaniaz
Hasiera data: 2010-05-28 / Bukaera data: 2010-05-30
Non: Mutrikun
Izena emateko: 943 195 088 - 617 333 003

Sukaldaritza, hasiberrientzat

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gaztelaniaz eta euskaraz
Hasiera data: 2010-05-05 / Bukaera data: 2010-05-27
Non: Eibarren
Izena emateko: Kontsultatu

Nominak egiten ikasteko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gaztelaniaz
Hasiera data: 2010-05-31 / Bukaera data: 2010-06-16
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 208 444

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Lili, la princesa hada»

25, domeka: 16:30

«Un profeta»

(Ongarri zinekluba)

29, eguena: 21:30

30, barixakua: 21:30

Frantzia, 2008. Zuz.: Jacques Audiard. Akt.: Tahar Rahim, Niels Arestrup, Adel Bencherif. 149 min. Malik El Djebena gazteak ez daki irakurtzen eta idazten, eta sei urte-

ko espetxe zigorra ezarri diote. Kartzelan, Korsikako preso talde batekin egingo du bat. Haien konfiantza lortuko du pixkanaka. Drama da.

Etxera itzuli ezinda, sumendi baten erupzioaren erruz


Europako ehunka hegaldi eten dituzte azken egunotan Islandiako sumendi baten erupzioagatik. Martxoaren 20an piztu zen Eyjafjalla sumendia, 200 urtean lehen aldiz, eta, ordutik, aztoratuta ditu Europako agintari, aire konpainia eta milaka eta milaka bidaiari. Aireportuetan harrapatuta gelditu dira milaka lagun, etxera bueltatu ezinda asko, eta irten ezinda beste hainbat. Halaxe gertatu zaie zenbait elgoibartari ere.

Sumendiaren kontu honek Txinan harrapatu ditu Anton Azpiazu Gorosabelgo sozietako bat eta Nagore Iureta Proschoolseko langilea -AFM Erreminta Makina fabrikatzaileen elkarteak eta sektoreko enpresak sortutako partzuergoa da Proschools-. Lankide batekin batera joan zen Azpiazu Txinara, apirilaren 11n. Astebeteren ostean, euren aire konpainiaren mezu bat jaso zuten. Sumendi bat erupzioan hasi zela eta aireko trafikoa etenda zegoela ohartarazten zieten mezuan. "Hasieran ez ginen larregi estutu. Astebetean amaituko zela pentsatu genuen, baina laster jabetu ginen kontua guk uste baino serioagoa zela. Txinatarrek ere kezkatzen hasita zeuden", aitortu zion BARRENI martitzenean, telefono bidez.

Ordura arte Europako arazoa izan zenak beste dimentsio bat hartu zuela jabetu ziren han. "Maiatzaren 1ean nazioarteko erakustazoka hasten da hemen, eta kolokan ikusten zituzten gauza asko". Egoerak okerrera egin zuela ikusita, aireportura deika hasi ziren, baina inork ez zien jaramonik egiten. "Halako batean, dozenaka deiren ostean, hartu zigun norbaitek, eta maiatzaren 2a aurretik ezingo ginela itzuli ohartarazi zigun. Ezer egin ezin hori gogorra da", dio.

Lerro hauek idazteko unean, eguazten arratsaldean, Frankfurtera-ko bidean zen Anton Azpiazu. Lankidea Txinan gelditu zen.

Nagore Iureta, berriz, apirilaren 12an abiatu zen Txinarantz, Josu Riezu AFMko lankidearekin. Prestakuntza alorreko proposamen berri bat aurkeztera joan ziren Tianjinera. Hainbat bileratan parte hartu ostean, etxeratzeko eguna iritsi zitzaizen, apirilaren 18an. Ordurako, Txinara joatekoa zen euskal herritar batek ohartaraziak zituen sumendiak eragindako kaosaz. "Hasieran ez genion garrantziarik eman, baina gaue-



an, Pekinen, telebistan ikusi genuen. Broma bat ematen zuen", aitortu du. Orduan hasi ziren estutzen. Bezperan, ziurrenik hegaldia bertan behera geldituko zela esan zieten, baina, badaezpada, aireportura joan ziren. "Gure hegaldia ez zela irtengo esan ziguten, eta maiatzaren 6a arte ez zegoela tokirik. Konpainiari hotelik jarriko ote zigun galdetu genion, eta ezetz erantzun ziguten, saihestezinako kontu bat zela-eta". Beste batzuek ez besteko zortea izan zuten Nagorek eta Josuk, baina. Izan ere, Jesus Amezagak, Fagor Automotoneko langileak, bere etxean hartu zituen.

Etixeratzeko, munduari buelta eman diote. Eguaztenean, New Yorkerako hegaldia hartzekoak ziren, gero handik Oportora joateko. Handik, taxian bueltatzekoak ziren. "Zazpi pertsona inguruk egin behar ei dugu gauza bera. Beste bi elgoibartar ere badira tartean: Alberto Garate eta Anjel Guenetxea. Islandian sumendia, eta euskaldunak Txinatik itzuli ezinda. Hau da globalizazioa!", esan du.

Hegazkinez eta trenez ezin, eta azkenean autoz

Olatz Astigarraga eta bere bikotekidea Erroman harrapatu zituen kontu honek, oporretan. Joan ordurako sumendia erupzioan hasia zen, baina inoiz ez zuten pentsatu horrenbestekoa izango zenik. Erroman lau egun egin, eta bueltatzeko ordua iritsi zitzaizenean ohartarazi zien amak arazoak zeudela. Goizean goiz Ciampinoko aireportura joan ziren, eta lurrean botata topatu zuten jendea. Gaur arte ezingo zutela itzuli esan zieten han, eta Erromako tren geltokira bidali zituzten, baina han ere jai. Ez zegoen txartelik. Kotxe bat alokatzen saiatu ziren gero, eta baita Civitavecchiatik Bartzelonarako ferry-rako txartela lortzen ere, baina ezer ez. Asko kostata, Erroma-Genova-Niza bidea egiteko tren txartela eskuratu zuten, jakinik Nizatik Bordelera trena zutela gero. Lau tren hartu eta 11 orduko bidea egin ostean Nizara iritsi ziren, eta beste arazo bat topatu zuten han: SNCF tren konpainiakoen greba. Baina, mirariak ere gertatzen dira tarteka. Han zeudela, euren lagun baten lankide bat Torinotik Bergarara autoz zetorrela jakinarazi zieten. Birentzako lekua zeukan, gainera, autoan. Bi eguneko bidea egin dute Erromatik etxera itzultzeko; oporretan egindako egunen erdia.





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14-16 behea
☎ / Faxe: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxe: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazla

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxe: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Jobeba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76/608 774 032



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

Lanusta

Etxe barruko erreformak
☎ 636 375 323
www.lanusta.com



Lorzaintza Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87





Elgoibar Arreiturre B.H.I.
Arregitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: 013431aa@hezkuntza.net

ELGOIBAR ARREITURRE B.H.I. 2010-2011 IKASTURTEA



BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

Teknologia (zikloetarako)

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

Aurrematrikulako datak:

Maiatzaren 3tik 12ra

GURASOENTZAT BILERA IREKIA: Apirilaren 28an, 19:00etan
IKASLEENTZAT ORIENTAZIO BILERA: Apirilaren 28an, 16:00etan
MEKAKO ARETOAN



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETAK BARRIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION